


# ZINEskOLA

Iparraldeko eskolak euskarazko zinemara !



Euskarazko zinema hedapenaren aldeko daraman ekintzaren kari, Euskal Kultur Erakundeak Udaleku elkarteak sustengatzen du, egitura honek euskarazko aisialdi jarduerak eskaintzen dituelarik, zinema barne.

Partaidetza hori publiko gazteei zuzendu animazio filmen ekoizpena, eskaintza eta hedapena kontutan hartzen du. Azken urteetan, murgiltze sarean edo sare elebidunean eskolatu ikasleen kopurua beti emendatzen ari da. Ikasle horiek Iparraldeko lehen mailako ikasleen % 40a inguru dira, hots 6 000 ikasle aldera, eta beraz, publiko horren galdeak ongi ulertu behar dira.

Egintzak badira, bereziki Udaleku elkarteak buruturiko « **Zinema hamabostaldia** » egitasmoa azken 20 urteetan. Alabaina, Udalekuk euskaraz ikasten duten lehen mailako haurrei euskarazko animazio filmak proposatzen, antolatzen eta eskaintzen die, lurraldeko ikasle gehieneri.

« Zinema hamabostaldia » proiektuaren bidez, euskaldun gazteeri euskarazko filmak ikusteko parada eskaini da. Iparraldeko eskola elebidun eta ikastoletako bi adin tarte ezberdineko haurrei, bi filma euskaldun proposatu zaie 10 herritako zinema gela alternatibo ezberdinetan.

Filmak hautatzeko, hainbat xehetasun kontutan hartu ditu Udalekuk :

- Euskararen maila : ttikientzat hautatzen den marrazki biziduna, ulergarria eta euskara ahalik eta errexena duena izan behar du. Haundientzat berriz, euskara erabilpenaren zalutasunari kasu ematen zaio.
- Edukia : filmek pasaratzen dituzten edota denbora guzian aipatzen dituzten gaiak ez dira konplikatuak izan behar, haurrek ez dezaten haria gal. Horrez gain, gaiak adinaren arabekoak izan behar dira eta dena den, atraktiboak. Azkenik filmaren edukiak haurraren barne gogoeta sustatu behar du zine saioaren ondotik.

Bainan urrunago joan nahi izan dugu «**Zineskola**» bezalako dispositibo bat plantan ezarriz, filmen programazio zorrotzago baten egiteko eta burutu behar den mediazio zerbitzu hobeki bat garatzeko.

Horretarako, « Zineskola » dispositiboa Zineuskadi elkartearen laguntzarekin baita ere Atalante zinema gelaren eta Cinévasion egituraren arduradunekin plantan eman dugu helburu horiekin : euskarazko eta kalitatezko animazio filmak haurrei proposatu, irakasleak lagundu lan horretan, eskoletatik kanpo euskararen erabilpena sustatu eta eskaintza honi gehiengoaren eskuragarritasuna segurtatu.

Ikuspuntu horretarik, filmak euskaraz bikoiztea garrantzitsua agertzen da, haurrei eta ikasleei zuzendu proposamen anitzak eta egokiak eskaini ahal izateko. Honen bidez, euskal ekoizpenekin batera katalogo eder baten osatzeko aukera bada, adin desberdinen arabera.

Funtsean, Zineuskadirekiko daramagun hurbileko harremanari esker lortzen dugu, « Zinema euskaraz » duten dispositiboari esker, besteak beste.

« **Zineskola** » dispositibo honek « Zinema hamabostaldia » proiektuaren segida bat bezala ikusi behar da, filma eskaintza berri bat, haurrentzat eta irakasleentzat mediazio tresna proposamenak lagundurik.

Maiatzaren 2a eta 21a artean, Iparraldeko hamar zine geletan ikusgai izanen dira bi filma : Benjamin Renner eta Vincent Patar-en « Ernest eta Célestine » (3 – 7 urte) baita ere Alain Gagnol eta Jean-Loup Felicioli-ren « Phantom Boy » (8 – 12 urte). Lurraldeko 50 eskoletatik milaka haurrek izena emana dute emanaldi horietara joateko, heien erakasleak lagundurik aurrez jasotako materialari esker.

« Zineskola » dispositiboa zenbakitan :

- 2 filma Iparraldeko 10 zinegeletan, Mauletik Hendaiara
- hamar emanaldi
- 3 erakaskuntza sareetako 50 ikastetxek parte hartzen
- 3000 haur eta 200 laguntzaile
- 40 autobus erreserbatuta

Seguruenik, haurren hezkuntzarako ekintza baliagarria euskarazko zinema eskaintza honi esker.

#### Emanaldien egutegia eta kokapenak

##### **Ernest & Célestine ( 3 – 7 urteko ikasleak)**

Maule	Donapaleu	D. Garazi	Hazparne	Kanbo	Biarritz	Baiona	D.Lohitzune	Urruña	Hendaia
05/05 9 :30	05/04 9 :30 eta 13 :30	05/04 10 :00 eta13 :30	05/11 9:30 eta 13 :30 05/15 9 :30	05/3 9 :30 05/4 13:30 05/5 14:00 05/9 14:00 05/10 9:00	05/4 9:30 05/15 9:30 05/16 9:30 05/18 9:30	05/4 9 :30 05/9 9 :30 05/11 9 :30 05/11 11 :30 05/19 9:30	05/ 4 9:30 05/10 9:30	05/11 9:30 05/12 9:30	05/2 14:00 05/9 9:30 05/15 9:30 05/16 9:30

##### **Phantom Boy (8 – 11 urteko ikasleak)**

Maule	Donapaleu	D. Garazi	Hazparne	Kanbo	Biarritz	Baiona	D.Lohitzune	Urruña	Hendaia
05/05 A 9h30	4/05 9h30 et 13h30	4/05 10h et 13h30	11/05 à 9h30 et 13h30 15/05 à 9h30	3/05 à 9h30 4/05 à 13h30 5/05 à 14h 9/05 à 14h 10/05 à 9h	4/05 à 9h30 15/05 à 9h30 16/05 à 9h30 18/05 à 9h30	4/05 à 9h30 9/05 à 9h30 11/05 à 9h30 11/05 à 11h30 19/05 à 9h30	4/05 à 9h30 10/05 à 9h30	11/05 à 9h30 12/05 à 9h30	2/05 à 14h 9/05 à 9h30 15/05 à 9h30 16/05 à 9h30

# Partaideak

## Udaleku

Uda Lekuren helburua euskararen erabilera eta euskaraz bizitzea sustatzea da. Haurren eta gazteen aisialdigune ezberdinetan, Uda Leku, euskarazko hezkuntza proposatzen du. Familia eta eskola, ohizko hezkuntza guneen osatzeko antolatua den ikas-eremua da.

Aisialdien bitartez euskararen sustatzea da Uda lekuren misioa.

Biharko helduak eraginkorrak eta arduradunak izateko, norberaren eta taldearen parte hartzea eskatzen duten egitasmo pedagogikoak proposatzen ditu, honako balore sendo hauen inguruan: Elkartasuna, Errespetua, Autonomia, Laikotasuna,, Herritartasuna, Haurrak, beren aisialdien bilakaeran arian-ariz parte hartzen lagunduko ditu.

## Institut Culturel Basque

Euskal kultur erakundea (EKE) 1990. urtean sortua izan da, euskararen eta euskal kulturaren alde ari diren elkarteek bultzaturik eta erakunde publikoek lagundurik, hala nola Estatu, Akitaniako kontseilua, Pirinio Atlantikoetako kontseilua, eta euskal kulturaren aldeko Herrien Sindikata.

Euskal kultur erakundeak lan egiten du euskal kulturaren zaintzeko, helarazteko eta hedatzeko, ber denboran sorkuntza suspertu nahi duelarik.

Eginbeharretan, ikusgarrigintzan, literaturan, ondarean, zinema edo entzun-ikus sailean ari diren kultura elkarteak laguntzen ditu, edo haiekilako arartekolaritza egiten.

Gaur egun, 160 kultura edo artista elkarte Euskal kultur erakundearen kide dira. Euskal kultur erakundea kultura ekintzetan eragile da ere. Hala nola garatzen ditu urte anitzetako programa edo labela batzu (Kantuketan, Batekmila, Eleketa, Hogeit'a,...), bai tokiko, bai kanpoko elkarte eta erakundeekin batera.

Euskal kulturaren baliabide iturri bezala ezagutua da eta mugazgaindiko harremanetan leku berezia dauka, besteak beste Eusko Jaurlaritzarekin duen partaidetzari esker.

## Zineuskadi

Zineuskadi irabazi-asmorik gabeko elkarte da eta kide fundatzaileen artean daude Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Euskadiko produktoreen bi elkarteak: IBAIA eta EPE-APV. 2014 urtetik Euskal Irrati Telebista, Festival Internacional de Cine de Donostia San Sebastian S.A. eta Fundación Filmoteca Vasca erakundeak ditu bazkide.

Euskal ikus-entzunezkoen sektoreari laguntza estrategikoa ematea du xede nagusi eta, ildo horretatik, enpresei eta profesionalei laguntza eskaintzen die nazio, Europa eta nazioarte mailan garatu eta zabaldu daitezten.



# Ernest & Celestine

ERNEST & CELESTINE · 2012 · FRANTZIA · 80' · 1,85:1 · ANIMAZIOA  
Guztelarik bikoiztutako bertutua, eskatzen eta katalunaz ere eskatzen.

## SINOPSIS

Hartzak handiak dira eta oso gosetiak, behin jaten hartean, parea jartzen saien edozer inentzen dute: sagu bat balaitik ez, milaka sagu behar dituzte euren sabela hasi eta. Horixe dio behintzat Gristak lurpeko agintzari komaren dien letrako ipuinak. Baina, Celestinek hartzak eta saguak lagun izan daitezkeela pentsatzen du eta horixe irudikatzen du bere marrazkietan.

Ernest basoan bizi den hartz handi bat da, musikaria ogihidex. Nagiko komero hertik esnatu denean, gosak amotzatzen abiatu da bixita sabela betetzeko xarbatu hila. Baina musikak ez dio jatorrik ematen, eta nabarraztean jald hila ari dela, hara non topatu duen Celestine agintza. Bai Ernestek bai Celestinek, elkarren laguntza behariko dute euren hizlodean aldatzeko. Hartzak gogak eta saguak behar hiru dituzte gisarte noroiz eta sarruzan, bi lagunak hainbat arru puskatu eta inguru osoa hantx gora jartzen dute euren laguntzazuzari osteko.



## FILMA THEDIOA

Zuzendaria  
Benjamin Bayon, Vincent Pons  
eta Stéphane Aubier

Elizkerak  
Dimitri Baoueu, Philippe Kacouffian,  
Vincent David, Stéphane Rochette eta  
Hanni Mangin

Gidoia  
Daniel Pennac  
(Gidoia Vincent Pons eta Stéphane Aubier y  
Celestine Bayon idatzitako)

Elizkerak  
Evan Rouvenac

Elizkerak  
Thibaut Raby

Antzerki idazkaria  
Patrick Imbert

Elizkerak  
Fabienne Alvarez-Giro

Elizkerak  
Vincent Casson

*"Zinemaren magian sarjizko gaitzen  
minari animazioa. Arloa eta paperaren  
maiztasun arteko bikoizta"*

-Cinemas-



Daniel Marín-geata eta komertzioa

Tel: 91 591 29 48 / Fax: 91 465 11 92  
dmarin@ivadofilms.com

Herrialdea

SHERPOCK





11 urte ditu eta 24 ordu New York salbatzeko!

# PHANTOM BOY

Katu bat Parisen,  
2012ko Oscarretarako  
proposaturako filmaren  
zuzendari berdina.

ZUZENDARIAK ALAIN GAGNOL eta JEAN-LOUP FELICOLI

ALAIN GAGNOL (GIZAKIAK) JEAN-LOUP FELICOLI (ANIMAZIOA) PASCAL VERMEERSCH (MANKY BENG) CAIMEL BERMAN (DAVID BOLS) SARAH MENHARDT (PIETERSAMYN) ARJAN WILSCHUT (REPTON MOUNTAIN) RUSBERG (HANSEN MANN) ROBINET (MONTAÑA) SERGI BESSET (MONTAÑA) STEPHANE CORTAL (MONTAÑA) JACQUES-REMY GIBERD (MONTAÑA) (LA CARTOUCHERIE) L'UNANIME (BOPESQUER) FRANCE 3 CINEMA, RHÔNE-ALPES CINEMA (MONTAÑA) BELEGADA PELUICIA ANHEMIE OUGRYSE (MONTAÑA) CATHERINE L'UNANIME MAUJIZI

7 urtetik aurrera gomendatua



Bizkaia



BARTON FILMS

## Sinopsia

New York...

Gangster desitxuratu misteriotu batek Alex zauritzen du, bere atzetik segika dabilen polizia inspektorea. Ospitalean inbilitatuta dagoela, Alex Leoren laguna egiten da, 11 urteko mutiko bat, zeinak bere gorputz barrutik irteteko gaitasuna duen.

Mamu guztiak bezala, ikusezina beste pertsona guztientzat, hegan egiten du eta hormak zeharka ditzake.

Aurpegia hautsita duen gizonak, hiria mehatxatuko du birus informatiko batekin.

Mutikoaren ahalmen izugarriei esker Alexek ikertzen jarrai dezake.



### FITXA ARTISTIKO ETA TEKNIKOA

Zuzendaritza

Gidoia

Dekoratuaren arduraduna eta grafikoen sortzailea

Teknikari arduraduna

Irudi arduraduna

Argitaratzailea

Soinuaren arduraduna

Nahastzailea

Belgikako animatzaileak

Musika

Orkestra zuzendaria

Eszenatokiaren diseinatzaileak

Diseintzaile grafikoak

Kolore modeloak

Frantziako animatzaileak

Fabrikazio estudioak

Koprodukzioa

Ekoizlea

Belgikako ekiztetxea

Ekoizpenaren arduraduna

Alain Gagnol

Jean-Loup Felicioli

Alain Gagnol

Jean-Loup Felicioli

Patrick Tallaron

Izu Troin

Hervé Guichard

Loïc Burkhardt

Jean-Paul Hurier

Pascal Vermeersch (Chef anim)

Nancy Bens

Camiel Hermans

David Bols

Sarah Menheere

Pieter Samyn

Arjan Ilschut

Serge Besset

Stéphane Cortial

Zoia Trofimova

Émilie Mercier

Christel Guibert

Jean Bouthors

Maryse Tuzi

Xavier Cruz

Alain Gagnol

Toby Jackman

Siergiej Gzila

Antoine Lanciaux

Sylvie Léonard

Elena Pomares

Laurent Repiton

Morten Riisberg Hansen

Marc Robinet

Folimage (la Cartoucherie)

Lunanime

Folimage

Lunanime

France 3 Cinéma

Rhône-Alpes Cinéma

Jacques-Rémy Girerd

Annemie Degryse

Catherine Blanc-Maurizi

 **BARTONFILMS**

Uribitarte kalea 8, 4. esk. A - 48001 Bilbo / Tel.: 94 424 05 59 / Fax: 94 423 89 57  
bartonfilms@bartonfilms.com / www.bartonfilms.com / www.facebook.com/bartonfilms